

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018

GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA

1. Euskadiko biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko dirulaguntzen programa 2
2. Balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako Eusko Jaurlaritzaren 2018ko «Elkarlan» sariak 3
3. Opendata Euskadi 2018 sariak 4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko diru-laguntzen programa

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 27koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskadiko biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko diru-laguntzen programa arautu eta hartarako deialdia egin duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2017ko irailaren 27koa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/10/1704780e.pdf>

AGINDUA, 2017ko urriaren 18koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, honako agindu honetako hutsak zuzentzen dituena: Agindua, 2017ko irailaren 27koa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/10/1705040e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da banda zabal ultraazkarreko sareak «NGA eremu zuri» izendatutako Euskadiko 1.000 biztanletik beherako biztanleguneetara hedatzeko la00guntzak arautzea. Eremu horiek ez dute NGA banda zabaleko Internetarako sarbide-zerbitzuak erabili ahal izateko telekomunikazio-azpiegiturarik, eta ez da espero hurrengo 3 urteetan halakorik izango dutenik

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017tik 2019ra (5.905.510 €) konprometitutako gastutik 2018an %31,8 egin da (Xedapena: 2.334.920 € Ordainduta 1.879.460,89 €).

Belaunaldi berriko Banda Zabal ultra-azkarraren zerbitzuek eragin sozioekonomiko positiboa sortzen dute hiru inguru hauetan: biztanleria, enpresak eta administrazio publikoak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Biztanlegune hedatuak	390	106



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako Eusko Jaurlaritzaren 2018ko «Elkarlan» sariak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko urriaren 30ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Eusko Jaurlaritzak balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako antolatzen dituen «Elkarlan» sarien laugarren deialdia onartzen duena (2018. urtea).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHA Ari Hiperesteka)

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/11/1805391a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da herritar antolatuek eta ez-antolatuek aurkeztutako proiektuak saritzea. Proiektuok balio publiko partekatua sustatu eta gizarteko erronkak eta beharrak ase behar dituzte sei jardueraremu hauetakoren batean: osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikasketa eta kultura, kohesio soziala; eta gobernantza, kultura demokratikoa eta erabaki publikoetako parte-hartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurkeztutako 30 proiektuen artetik 3 saritu dira, berritzaileak eta eredugarriak direlako eta herritarrei ahalduntzeko bidea ematen dietelako. Aurkeztutako proiektuek honako esparru hauei eragiten diete: osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikasketa eta kultura, kohesio soziala, eta gobernantza, kultura demokratikoa eta parte-hartze soziala.

Zehazki, proiektu hauek saritu dira:

- Bioalai kontsumo ekologikoaren elkarteak: elkarren arteko kudeaketa eta agroekologia, Bioalairen produktu ekologikoen kontsumoa sustatzeko.
- WikiEmakume: lankidetzak eta ahalduntzeak, emakume eredugarriak Wikipedia elkarlaneko entziklopedian agerian jarri (Etxebarriko Inurtxi Emakume Elkarteak).
- Impac hub Donostia: ekintzailak eta elkarren arteko sorkuntza, Impac Hub Donostia S. Coop kooperatibaren eraldaketa sozialerako proiektuak garatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako proiektu kopurua	30	30
Herritarrek web-plataforman emandako botoen kopurua	1.000	1.812



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Opendata Euskadi 2018 sariak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 15ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko datu irekiak berrerabiltzeko ideia onenatarako sarien bigarren edizioaren deialdia onartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/05/1802667a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Eusko Jaurlaritzaren datu irekiak berrerabiltzeko lehiaketa iragartzen da, Open Data Euskadi webgunearen berri emateko eta haren katalogoaren potentziala erakusteko, datu irekien erabilera eta horietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzeko, bai eta datuok berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboek gehien eskatzen dituztenak zehazteko ere, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egite aldera.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Parte-hartzeari eta piztu den interesari dagokionez, balantzea oso ona izan da. Hogeita hamar proiektu baino gehiago aurkeztu dira zuzenean bi proiektuetara, eta hautagaiak enpresak eta pertsona fisikoak izan dira.

2018ko edizio honetan, beste berrikuntza batzuen artean, Eusko Jaurlaritzak antolatu ditu lehiaketak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalen laguntza baliotsuarekin. Erakunde horiek guztiek agertu dute prest daudela bultzada emateko euren esku dituzten datuak ireki daitezen, formatu berrerabilgarrietan eta erabilera-lizentzia irekien bidez.

Lehiaketa horiek Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzaren esparruan antolatu dira. Bertan, Eusko Jaurlaritzak, EAEko gainerako administrazioekin batera, agindu du lan egingo duela herritarren intereseko datu publikoak irekiak izan daitezen eta helburu sozial edo ekonomikoetarako berrerabil daitezen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako hautagai kopurua	20	15
Opendata Euskadiko datu irekien zenbat multzo erabili diren	50	62